

HITZA



JUAN LUIS ROMATEI

«Betitik gustatu zait ura; ez surferako bakarrik, baita arrantzarako ere»

ALEX ODRIOZOLA
BODYBOARDLARIA

2022ko Euskal Bodyboard Zirkuituan open mailan nagusi izan da zumaiarra. Aurretik ere beste behin irabazita dauka zirkuitu hori. Kanpoan txapelketak jokatzek baino gehiago tentatzen du surfean ondo pasatzek // 4

Dantza tradizionala eta garaikidea lotzen dituen 'Laminosine' obra, Zarautzen

Oztibarreko Bunuztar Xoriak taldearen ikuskizuna egingo dute hilaren 28an. Jalgi dantza taldea izan dute bidelagun emanaldia prestatzeko. Saio hori aitzakia hartuta, asteburu osorako kultur topaketa antolatu dute // 2



Zestoa Xabier Unanuek berak transkribatutako 42.000 bertso Zestoako Udal Liburutegiaren esku utzi ditu dohaintzan // 7

Bihar hasita, bi asteburutan ospatuko dituzte Santa Ines jaiak Iraetan

Garagardo Feria antolatu dute biharko, afari herrikoiarekin batera; txartelak erosteko azkenengo eguna gaur da. Igandean aizkolarien eta harri jasotzaileen erakustaldia izango da // 6

-JABI GONZALEZ TOSTON


Egun berezia izango da urtarrilaren 28a, larunbata, Zarautzen. Oztibarreko (Nafarroa Beherea) Bunuztar Xoriak dantza taldeko nerabeak hartuko ditu herriak *Laminosine* dantza ikuskizuna eskaini dezaten. Euskal dantza tradizionala eta garaikidea uztartzen dituen «arimadun» ikuskizuna da, emanaldia antolatzen dibilen Jalgi dantza taldeko Unai Lazkanoren hitzetan.

Oztibarre bailara osatzen duten herri guztietako 6 urtetik gorako haurrei euskal dantzak erakustea da Bunuztar Xoriak taldearen egiteko nagusia. Adinean aurrera egin ahala, nerabezarora iristean, dantza alde batera uzten dute gaztetxoek, eta horri aurre egiteko asmoz sortu dute *Laminosine* ikuskizuna. Gazteak erakartzeko pizgarri gisa, alegia. Helburua «ehuneko ehunean» bete dute Jonefa Bacho dantza taldeko lehendakariaren arabera. Ez da harritzekoa, sortu duten emanaldia ez baita nolana hiko.

Sortze prozesu horri erreparatuta, dantza garaikidean aditua den Fanny Marmayou koreografo profesionalaren laguntza izan dute. Edonola ere, gutzia gazteei adostu duela argitu du Bachok: «Ez die ezer inposatu, elkarrekin landu dute». Lanketa hori nola egin duten ere azaldu du Bunuztar Xorien lehendakariak: «Marmayouk gazteei eskatu zien pentsatzeko zein ziren beren baitan zituzten kezak eta mugimenduen bidez adierazteko. Ondoren, jasotako proposamenak lotu zituen, eta hori izan zen abiapuntua. Dantza garaikidearen ikuspegia ekarri digu koreografoak, eta urte osoan euskal dantzak erakusten dituzten taldeko bi irakaslerekin ere aritu da elkarlanean, hark ez baitzuen oinarri nahikorik arlo horretan».

Musika eta antzerkia

Dena den, dantza baino askoz gehiago du *Laminosine* lanak. Oholtza gaineko hamairu dantzariak -hamabi neska eta mutil bat- mugiarazten dituzten doinuak zuzenean jotzen dituzte beste bost musikaririk, eta dantza ikuskizunerako espresuki sortutako piezak dira, gainera. Zentzu horretan, koreografoa bera izan zen, proiektuak zuen indarra ikusita, musika ere sortu beharra zegoela adierazi zuena. Bada, beste profesional bat arduratu da lan horretaz: Xabi Leon.



Bunuztar Xoriak dantza taldeko nerabeen *Laminosine* ikuskizunaren une bat. UTZITAKOIA

Dantza, zuzeneko musika eta ipuin kontaketa batzen dituen 'Laminosine' proposamena ekarriko du Zarautzera Nafarroa Behereko Bunuztar Xoriak dantza taldeak. Jalgi izan dute bidelagun eta konplize emanaldia antolatzeke orduan.

Arimadun ikusgarria, senidetzeko aitzakia

Hori gutxi balitz, antzerkitik ere badu ikuskizunak; dantzak osatzeko euskal mitologiarekin lotutako ipunak ere kontatuko dituzte protagonistek. Halere, kontalari lanetan ipuinok idatzi dituen Jokin Irungarai aritzen da batik bat.

Xarles Bideigainek idatzitako eta ikuskizunaren izen bera daraman *Laminosine* liburutik hautatu eta moldatu ditu ipuinak Irungaraiak. Oztibarreko hainbat bizilagunen lekukotasu-netatik abiatuta idatzi zuen liburua Bideigainek, eta 80 ipuin biltzen ditu. *Laminosine* lakuari buruzkoa da horietako bat.

Kondairak dio lamien topaleku dela lakua eta itsasoarekin lotuta dagoen amaierarik ez duen

zuloa dela, gainera. Izan ere, inguruko errekek lehortzen direnean ere ura izaten omen du *Laminosine*kin. Horrez gain, itsasotako mareak gora egiten duenean lakuko urak ere gora egiten duela diote. Era berean, basajaunek eta beste hainbat pertsonaia mi-

tologikok ere badute lekua ikuskizunean.

Zubiak eraikitzeke eguna

Ikuskizun nagusia Lizardi kirol aretoan izango da hilaren 28an, 19:00etan, eta sarrerak zazpi euroan daude aurrez eskuragarri; egunean bertan, berriz, hamar euroan jarriko dituzte salgai. Jalgi dantza taldeko gazteak ere izango dira aurretik agertokian, baita euskal dantzak eskainiko dituen Bunuztar Xorien dantzari talde gazteago bat ere. Artistekin batera, horien senitarteko eta laguntzaileak ere etorriko dira Nafarroa Beheretik Zarautzera asteburua pasatzera. Izan ere, Ipar eta Hego Euskal Herriko euskal-dunak elkartzeko topaketa ere

Asteburu osorako kultur topaketa eta gitarrau zabala

Larunbat eguerdirako espero dituzte Zarautzen Oztibarreko bizilagunak. Autobusez etorriko dira, eta Monte Albertia aterpetxean egingo dute egonaldia. Bertan egingo diete ongi-egietorria bazkariarekin.

Bazkalostean, Lizardi areto-ra joango dira emanaldian parte hartu behar duten Jalgi eta Bunuztar Xoriak dantza taldeetako gaztetxoak eta gainerakoek, kantujiran egingo dute areto-arteko bidea Arrai Zopak kantu bandarekin. 16:00 aldera jarri dute hitzordua.

Igande eguerdian, berriz, Alaken taldeak musikako eskainiko ditu Musika Plazan, eta bazkaldu ondoren amaituko dute egonaldia.

antolatu dute emanaldia baliatuta. 60 lagun inguru etorriko dira.

Horren harira, Lazkanok adierazi du «iparraldeko anai-arrebekiko gure buruari jartzen diogun muga gainditzea» dela xedea. Hain justu, joan den ekainean Oztibarren egin zuten lehenengo topaketa batean hartu zuen parte Lazkanok familiarekin eta Zarautzko Ikastolako beste hainbat guraso eta haurrekin: «Larzabaleko ikastolako guraso batzuek Imanol Epelderi proposatu zioten bertako egoera soziolinguistikoa ezagutzeko eta haurrak harremantzeko elkartzea. Ikastolatik kanpo euskaraz aritzeko aukera gutxi dituzte ikasleek eta deia zabaldu ondoren, Zarautzko hamairu familia animatu ginen».

Ordukoa esperientzia aberasgarria izan zela gogoratu du Lazkanok eta *Laminosine* herrian eskaintzeko ideia ere artean sortu zela: «Dantza saioa eskaini zuten gaztetxoek, eta gure artean dantzari izandakoak geundenez, gu ere animatu ginen dantzara. Herrian haurren dantza talderik ba ote ginen galdetu ziguten, eta aho bete hortz geratu ziren Jalgin zenbat partaide diren zehaztu genienean. Orduan azaldu ziguten uztaillean estreinatuko zuten emanaldi berezi bat prestatzen ari zirela, eta hona ekarri nahiko luketela».

Bistan denez, lortuko dute *Laminosine* ekartzea, baita topaketari segida ematea ere, bide batez. Hileko azken asteburuan izango da, esan bezala, eta Jalgirekin hasitako harremanari «urte luzez eustea» espero duela aitortu du Bachok.

Ander Epelderren lanak irabazi du plaieroetako kamiseta lehiaketa


'Goizean, goizo, gozatzera!' proposamen minimalista hautatu dute antolatzaileek lau finalisten artean • Egileak hilaren 28an jasoko du saria eta elastikoa ere orduan aurkeztuko dute

- JABI GONZALEZ TOSTON

Plaieroek dagoeneko badute kamiseta propiorako diseinua. Ander Epeldek egin du, eta hilaren 28tik aurrera izango da eskuragarri 10 euroan. Gisa horretan, amaiera eman diote Hondartzako Futbol Txapelketako antolatzaileek joan den abenduaren erdialdean abiatu zuten elastiko lehiaketari.

25 proposamen aurkeztu zituzten orotara, eta bozketa irekian herritarrek lau gustukoena aukeratu ondoren, antolatzaileek bilera egin zuten gaur zortzi, bozketa itxian, diseinu irabazlea erabakitzeke. Hala, igandean jakinarazi zuten Epelderren lana izango dela plaieroen irudia hondartzatik atera eta herri osora zabalduko duena; izan ere, horixe da lehiaketa honen xedea.

Antolatzaileek zehaztu dute, gainera, aho batez hautatu dutela Epeldek sortu eta *Goizean, goizo, gozatzera!* deitu duen diseinua, eta arrazoiak ere azaldu dituzte: «Lehenik, estetikoki proposamenik berritzaile eta originalena izan delako. Beste-



'Goizean, goizo, gozatzera!' diseinu irabazlea. ANDER EPELDE

tik, bere sinpletasunetik asko adierazten duen marrazkia delako, oso esanguratsua da plaieroetan jokatzeko duen edonoren-tzat. Azkenik, balioa ematen dio plaieroetako partida bakoitzako posible izateko horren beharrezkoa den lanari. Kasu honetan, atek zelaira eramatea irudikatuz».

Gauzak horrela, lehiaketaren irabazleak urtarrilaren 28an jokatuko den plaieroaren zazpigarren jardunaldian jasoko du 150

euroko saria. Gainera, kamiseta ere orduan aurkeztuko dute, eta eskaera egin duten talde parte hartzaileetako jokalarien artean banatuko. Edonola ere, salgai ere jarriko dute herritarren artean, 10 euroan. Zentzu horretan, zehaztu dute partida egunetan izango dela erosteko aukera, baina eskaerak *online* egiteko parada ere izango da plaieroaren sare sozialaren bidez edo *antolakuntza@playeruak.eus* posta helbidera idatzita.

Herriko 11 eraikin publikotako eta kaleko argiteria berrituko dituzte

Zarautz jasangarriagoa lortzeko bidean hartutako neurria da • Energia kontsumoa erdira murriztea eta urtean 300.000 eurotik gora aurrezteko aurrekustuen dute

- J. GONZALEZ TOSTON

Udalak prest ditu udal energia baliabideen kudeaketa integrala esleitzeko oinarriak. Kontratu horren bidez, udal energia kontsumoaren %89 suposatzen duten 11 eraikin publikoren eta kale argiteriaren instalakuntzak berrituko dituzte kontsumoa erdira murrizte aldera. Horrek inbertsioa ekarriko dio udalari, baina, aldi berean, gastu murrizketa etorkizunera begira. Izan ere, 300.000 eurotik gora aurreztuko dituztela aurreikusi dute.

Iker Basurko Proiektu Estrategikoen zinegotziak nabarmendu du Zarautz jasangarriagoa lortzeko bidean egin beharreko inbertsioa dela. «Trantsizio energetikoa ez da hila bete gutxi batzuetako kontua. Hasteko, inbertsio handiak egin behar dira aurrezpen garrantzitsuak lortzeko eta energiaren ikuspegitik gizarte jasangarriagoa izateko».

Gauzak horrela, honako eraikinen publiko hauetan berrituko

dute argiteria: Etxezabal, Portuetxen, Udaberrin, Musika Eskolan, Sanz Enea kultur etxean, Aritzatalde kiroldegian, Orokietako bi eraikinetan, haur eskolako bi eraikinetan eta Asti kirol gunean.

14.380.829 kWh-koa da azpiegitura horien guztien kontsumoa, eta zinegotziak jakitera eman du Zarautzko Udala inguruko energia kontsumitzaile handienetakoa dela. Horregatik, nabarmendu du udal energia kontsumoa gutxitzeko beharra dagoela, «zarautzarron onurarako» izango delako. Gainera, bere esanetan, «CO2 igorpenak gutxitzea ere ekarriko du».

Udalak iaz onartutako 2022-2030 Jasangarritasun Energetikokoaren Jarduera Planaren barruko ekintza da argiteria berritzea, baina jarduera gehiago ere badira. Urola Kostako Udala Elkaitean herritarrentzako Energia Bulegoa sortzea ere sustatu du, esaterako.

Hotz Zarautzek 27.000 euro bildu ditu iazko elkartasun jardueretan

- J. GONZALEZ TOSTON

Hotz Zarautz Gobernu Kanpoko erakundeak jakinarazi du 27.000 euro bildu dituela joan den 2022an parte hartu duen ekitaldietan. Hala nola, berriki egin dituen Gabonetako bigarren eskuko azoka, Zarautz Abesbatzaren kontzertu solidarioa eta La Perlako Gabonetako txokolatada solidarioak nabarmendu ditu, baita Getaria-Zarautz igeriketa zeharkaldia ere. Horrez gain, bestelako lagun-

tzak ere jaso ditu; Aiako Udalarena, esaterako.

Bildutako zenbateko ekonomiko hori guztia pertsona errefuxiatuekin lanean ari diren elkarrekin bideratuko dutela egin dituen Gabonetako bigarren eskuko azoka, Zarautz Abesbatzaren kontzertu solidarioa eta La Perlako Gabonetako txokolatada solidarioak nabarmendu ditu, baita Getaria-Zarautz igeriketa zeharkaldia ere. Horrez gain, bestelako lagun-

Itsas hondakinak ikertzeko jarduera egingo dute igandean

- ARITZ MUTIOZABAL

Itsas hondakinak eta mikroplastikoak ikertzeko dituzte asteburu honetan Zarautzko hondartzan, *Herritarren Zientzia* izeneko ariketaren bitartez. Hasiere batean azaroaren erdian egitekoak ziren jarduera, baina baldintza klimatologikoen laguntza ez zutelako, atzeratzea erabaki zuten hitzordua.

Ikasturte hasieratik herriko ikastetxe guztietako 700 ikasle baino gehiagorekin ari dira ariketa hori egiten Mater Ontzi

Ekoaktiboko hezitzaileen laguntzarekin, eta igande honetan herritar guztiak zabalduko dituzte gauza bera egiteko aukera; elkartzeko gunea skate parkean jarri dute, 09:30ean.

Zientzia ariketa hau irekia da, eta nahi duen orok har dezake parte. Edonola ere, bertaratzeko interesa dutenek alde zuretik eman beharko dute izena plazak mugatuak direlako. Horretarako, 943-00 51 59 telefono zenbakira deitu ahal izango da edo, bestela, *zarautz@eraztunber-*

deurdina.eus posta elektronikora idatzita.

Jardunaldia hiru zaitan banatuta egongo da: lehenik eta behin, itsas-hondakinaren bilketa egingo dute, 09:30ean hasita; ondoren, jasotzen dituzten mikroplastikoak aztertuko dituzte, 11:00etan; eta, amaitzeko, itsas erraldoien martxa egingo dute, 13:00etan. Mater Ontzi Ekoaktiboko kideen eskutik eta Cimasubeko boluntarioen laguntzarekin gauzatuko da Herritarren Zientzia ariketa.

«Lehiaketetan parte hartu baino, nahiago dut surfean lasai ibili»

ALEX ODRIOZOLA EUSKAL BODYBOARD ZIRKUITUKO IRABAZLEA

2022ko Euskal Bodyboard Zirkuitua irabazi du Alex Odriozolak (Zumaia, 1994). Aurrez ere irabazi izan du zirkuitua, eta kirolarekin gozatzeko asmoa agertu du.

-JUAN LUIS ROMATET

Mundakan (Bizkaia) jokatu zen pasa den asteburuan 2022ko Euskal Bodyboard Zirkuituko azken proba. Esanguratsua izan zen open kategoriako podiumak eman zuen argazkia: lau zumaia, laurak lagunak, podiutera igota. Poztu egiten da Alex Odriozola irudi hori gogoratzen ditotenean.

Azken proba urtarrilean sartuta egin bada ere, 2022ko Euskal Bodyboard Zirkuitua da irabazi berri duzuna. Urtea hasteko modu ezin hobea, ezta?

2022ko zirkuitua da, bai. Abenduan jokatzekoa zen Mundakako proba atzeratu egin zuten olatu faltagatik. Orain bukatu dugu, baina berez, pasa den urtekoa da. Urtea hasteko modu oso ona da, bai. Gainera, Mundakan egotea bera saria da; han lehiatu izana handia da.

Mundakan parte hartzea gorapen duzu. Zergatik? Zer da zuzentzako Mundakako?

Zirkuituaren barruan aurretik hiru proba jokatu genituen. Lehenengo Bakion [Bizkaia], bigarrena Zumaian, eta hirugarrena Ereagan [Bizkaia]. Ereagako probara sailkapeneko lehen hamaseiak sailkatzen ziren, eta Mundakako laugarren probarako, lehen zortziak. Mundakan, egun normal batean, agian, 200 pertsona daude surfean, hango olatua oso ona da eta. Txapelketan, berriz, ordu erdiz lau lagun bakarrik ibiltzea, beste hiru eta zu, hori gauza handia da.

Denboraldia, osotasunean, nola baloratuko zenuke?

Bakioko proba udan izan zen, eta oso olatu txikiak zeuden; data jarrita zegoenez, ordea, egin beharra zegoen. Zumaian, Itzurunen, olatu hobeak izan ziren, baina zorte handirik ez nuen izan: lehenengo txanda pasatu nuen, baina bigarrenengoan kalera joan nintzen. Ereagan ere ez zegoen itsaso handirik, baina hala egokitu zen.

Bakioko eta Ereagako probak irabazi zenituen. Alex Uranga



JUAN LUIS ROMATET

zumaia, berriz, Zumaiakoa eta Mundakakoa. Bion artean izan al da bukaera lehia?

Bai. Alex [Uranga] ez zen Bakioko proban izan, eta horrek aukerak kendu zizkion zirkuitua irabazteko. Mundakako probaren aurretik, oraindik ez nuen ziurtatuta zirkuitua irabaztea. Nire atzetik Ayoub [Adardour] marokarra zegoen, eta hirugarren Xabi Urrestilla. 400 puntuko alde nuen, baina Mundakako probak puntuazio bikoitza ematen du: Ereagan irabazteak 1.000 puntu ematen ditu, baina Mundakakoak 2.000. Orduan, sailkapen orokorra iraultzea bazegoen oraindik ere. Xabi Urrestillak irabazi izan balu [hirugarren izan zen Mundakako proban], agian, berak irabaziko zukeen zirkuitua.

Mundakako probako podiumean lau zumaia...

...eta laurak lagunak; elkarrekin aritzen gara surfean. Andoni [Izaga, zumaia] kalera joan zen finalerdietan. Eta, gero, Debako lagun bat ere bazegoen, Ivan [Castelo]; galiziarra da, eta gurekin aritzen da surfean. Jus-

tu, gainera, oso egun ona izan zen, egundoko eguraldia zegoen, oso giro ona egon zen eta olatu politik. Dena ondo. Bestalde, lagunak bagara ere, lehia izaten dugu. Uretan desberdina da. Gero, txapelketetan, lehenetsuak egoten dira: olatua hartzen duzenean, gero besteen txanda izaten da; bakoitzak dagokiona hartzen du. Beste bati dagokion olatua hartuz gero, penalizazioa izaten da.

Zer suposatzen du garaipen honek zuretzako?

Aurretik ere irabazita daukat zirkuitua. Hemengo txapelketak jokatuko ditut, baina hemendik kanpora lehiatzera joatea ez da nire burutik pasatzen. Kanpora joatekotan ez nintzateke txapelketa bat lehiatzera joango; surf egitera eta ondo pasatzera joango nintzateke. Presiorik gabe. Uda garaian Sintran (Portugalen) egiten den munduko txapelketara joanda agian ondo pasatuko nuke, baina ez da asko erakartzen nauen zerbaite. Lehiaketetan aritu baino, nahiago dut beste nonbaitera joan eta surfean bakarrik edo lagunekin

lasai ibili. Lehiaketetan badakizu zer dagoen: lehiatzera zoaz, hortara zoaz.

Bodyboarda surfaren senide txikia bezala ikusten da. Zumaian ez da hala, ezta?

Zumaian indar handia du, eta esango nuke jende gehiago ibiltzen dela paipoan surfean baino. Gainera, gazte asko dator atzetik gogoarekin. Itzurungo olatua aproposagoa dela esango nuke bodyboarderako surferako baino. Esaterako, Zarauzko olatua luzeagoa da, eta indar gutxiago du; Itzurungo txikiagoa da, eta indar handiago du. Olatu hori guretzako hobea da.

Zerk erakarri zintuen bodyboarderaren aritzera?

Ura betidanik gustatu izan zait, ez bakarrik surferako; arrantzara ere joaten naiz. Udan beti uretan ibiltzen nintzen, txikitatik. Hasieran paipoarekin hasi nintzen, gero surf taularekin ere ibili nintzen, eta amaieran, paipoarekin berriro ere. Taularekin ez naiz gaizki aritu, eta urte batean edo bitan taularekin aritu izanaren oroitzapenak baditut, baina paipoa gehiago gustatzen zait.

Hasi ginenean, gaur bezalako eguraldi txarrarekin eta olatu gutxiarekin, zein joango ginen uretara? Xabi Urrestilla, ni eta batzuetan Unai Uranga ere bai. Arratsaldetan joaten ginen, eta han ez zen inor egoten. Orain joaten bazara, lekurik ere ez duzu aurkituko.

Kirol honekin hasi zirenak Manu Uranga eta izango ziren. Gero Jon Lopez eta Alex Uranga kanpora joaten hasi ziren. Ondoren gu hasi ginen, haien atzetik. Erreferenteak izan ziren, uretan geundenean ikusten genituen eta maniobra handi horiek egiten. Baina hori kirol denetan gertatzen da. Ikusten dituzu zeu baino zaharragoak direnak gauza zailagoak egiten, eta, jo, hori egiten nahi duzu.



«Zumaian indar handia du paipoak, eta surfean baino jende gehiago dabil»

«Surf taularekin ere ondo aritu naiz, baina nahiago dut bodyboarda»

Kirol modalitate guztietan da zaila kirolek bizitzea, zer esanik ez bodyboardetik, ezta?

Alexek [Uranga] saiakera bat egin zuen, urte batzuk egin zituen, baina bueltatu denean, lehen urtetik egin behar izan du lan. Bodyboardetik bizi nahi duenak eskola bat muntatu behar du bere izenarekin, edo erabiltzen duen izenarekin, eta gero, akaso, erabiltzen duen paipoen ordezkarri bihurtu. Bestela, kirolek bizitzea oso zaila ikusten dut.

Zuk ez al duzu ideia hori izan?

Ez, ez, inoiz ez. Kanpora lehiatzera joatea bai, horrek inbidia ematen du. Baina errealitatea bestelakoa da. Kanpora joan eta ondo ateratzen bazaizu, primeran. Baina hori proba batekin; gero, proba gehiago daude: Txile dela, Hawaii dela, Reunion irla dela... Horrek aurrekontu handia eskatzen du, eta babesleek ez dute ezer ematen. Ondo aterata urte batzuk hortik bizi zaitezke, baina ez da erraza.

Etorkizunean surfean ikusten al duzu zeure burua?

Bai, hori ez da pasatzen. Beste kirol batzuetan behartuta zaude entrenatzera eta. Gu uretara joaten gara nahi dugulako; olatuak dauden bakoitzean, han gaude.



Kultur egitarauko protagonistetako batzuk eta Esti Lizarreta Aiako Kultura zinegotzia, atzo eguerdian Aiako probalekuan. ANDREA ZIPITRIA

Udala gustura da San Anton egunarekin, eta gusturago ekintza berriekin

–ONINTZA LETE ARRIETA

Getaria

San Anton eguna pasatuta, balorazioa egiteko unea iritsi zaio Getariako Udalari. Are gehiago, aurten jarduera berriak txertatu dituelako: Gazte Eguna joan den larunbatean, eta haurrentzako herri kirolak San Anton egunean bertan. Bi berrikuntzekin «oso gustura» da udala, Ekaitz Esteban Festa zinegotziak HITZARI azaldu dionez. «Umeek San Anton eguna jai izanda, behar zuten beraientzako moduko ekintzaren bat, eta parte hartzearekin eta ekintzarekin pozik gaude». Gazte Egunaz ere balorazio ona egin du: «Eguraldiak lagundu zuen larunbatean, eta gazte asko elkartu ziren frontoiko karpan bai bazkarian, bai kontzertuetan. Elektrotxorongo herriko elektrotxarangak ere eskulako giroa jarri zuen».

Eguraldiak kalte

Urtero bezala, aurten ere goi mailako pilota partida eta bertso saioa izan dira sanantonetan, eta horiek «harrera oso ona» izan dutela iritzi dio zinegotziak. «Pilota partida beharbada ez zen izan oso ikusgarria, baina salmentak onak izan ziren», azaldu du. Balentziaga Museoko bertso saioari dagokionez, arrakastatsua izan zela nabarmendu du, 300dik gora zale elkartu baitziren. «Puntako bertsolariak ekarri ditugu, Txapelketa Nagusian aritu direnak, eta txapelketa orain gutxi izan da, gainera. Horrek ere lagundu du», azaldu du.

Balorzio kaskarrena San Anton eguneko txakolin dastaketarena izan da, «eguraldi txarragatik eta asteguna tokatu delako» beste urteetan baino jende gutxiago ibili baita. Karpa jendez bete zen; ez, ordea, tabernak. Hori bai, jateak bazkalorduan beteta zeudela aitortu du zinegotziak.

Kultur egitarau «koloretsua eta aberatsa» aurkeztu dute Aian

Urte guztirako zazpi kultura ekitaldi aurreiskusi ditu Aiako Udalak, eta bihar bertan izango da horietako lehena, 'Lehendakari Gaia' antzezlan eskainiko baitute.

–ANDREA ZIPITRIA Aia

Aiako Udala duela lau urte hasi zen kulturari bultzada emateko kultur ekitaldiak antolatzen herrian, eta ildo beretik, aurten ere «kulturari bere lekua ematen» jarraitu nahi dute. Aurtengo programa «koloretsua eta aberatsa» izango dela azaldu zuen atzo Esti Lizarreta Aiako Kultura zinegotziak, 2023ko kultur egitarauaren aurkezpenean.

Antzerkiak, dantzak eta musika gozatzeko aukera izango da datozen hilabeteetan Aiako probalekuan. Guztira, zazpi ekitaldi prestatu dituzte, eta bihar bertan izango da ekitaldi sortako lehena: *Lehendakari gaia* antzezlan.

Urtean zehar Aiako probalekuko oholtzara igoko diren artistak honak hauek izango dira: Mikel Urdangarin, Intza Unanue, Olatz Salvador, Janus Lester

ter banda, Huntza taldea eta Kimua dantza kolektiboa.

Bi hiletako sarrerek salgai

Ekitaldietarako sarrerek pixkanaka jarriko dituzte salgai, eta urtarriko nahiz otsaileko saioetakoak dagoeneko eros daitezke; martxotik aurrerako ekitaldietakoak, berriz, aurrerago jarriko dituzte, eta orduan zehaztuko dute ordutegia ere.

Egitaraua

Bihar, larunbata. 22:30ean hasita, *Lehendakari gaia* antzezlan eskainiko dute Iker Galarzak eta Zuhaitz Gurrutzagak.

Otsailak 11, larunbata.

22:30ean, Janus Lester musika taldeak *Ez gaitzala loak harripatu* proiektua aurkeztuko du, probalekuan.

Ohi bezala, Aiako Kultur Etxean eta *online* erosi ahalko dira sarrerak.

Aurtengo kultur programaziko protagonistetako batzuk presente izan ziren atzo eguerdiko aurkezpen ekitaldian: Jokin Pinatxo Janus Lester bandako abeslaria, Kimua Dantza Kolektiboko Ander Errasti oriotarra eta Eneko Galdos dantzariak, eta Intza Unanue abeslari oriotarra.

Martxoak 11, larunbata. Huntza musika taldeak *Ezin ezer espero* laneko kantuak joko ditu probalekuan.

Uztailak 8, larunbata. Mikel Urdangarin 25. urteurrena ospatzeko kontzertua eskainiko du Aian, Rafa Rueda, Ander Hurtado de Saratxo eta Jon Cañaveras musikariak oholtzan lagun dituela.

Azken horrek aurreratu zuen disko berria prestatzeko lanetan murgilduta dabilela, eta Aian egingo duela estreinaldia. Hala, bertaratzen diren herritarrek disko berriko kantak lehen aldiz entzuteko aukera izango dute. Kimua dantza taldea ere berrikuntzekin iritsiko da Aiara. *GenErorAntz* emanaldiarekin «generoaren inguruko hausnarrekta» egitera bultzatu nahi dute.

Iriakal 23, larunbata. Kimua dantza kolektiboaren *Generorantz* antzokirako sortutako ikuskizuna ikusteko aukera izango da.

Urriak 14, larunbata. Intza Unanue abeslari oriotarrak lan berria estreinatuko du.

Abenduak 16, larunbata. Olatz Salvadorrek disko berria aurkeztuko du.



Iraetan, Santa Ines jaietarako prest

Bihartik urtarrilaren 28ra bitartean ospatuko dituzte festak; askotariko ekintzak izango dira Zestoako auzoan • Gaur da Garagardo Feriarako txartelak erosteko azken eguna

-IHINTZA ELUSTONDO

Zestoa

Iraetan dagoeneko dena prest dute Santa Ines jaietarako. Bihar hasi eta urtarrilaren 28ra bitartean ospatuko dituzte festak, eta egun horietan askotariko ekintzak izango dira Zestoako auzoan.

Bihar, Garagardo Feria egingo dute. Saltxitxak, txerri ukondoa, postrea eta nahi adina garagardo dastatu ahal izango da, 20:30etik 00:00etara. Gaur izango da txartelak erosteko azken eguna; ho-

Egitaraua

BIHAR, LARUNBATA. SANTA INESEGUNA

10:00. Txupinazoa.

11:00. Santa Ines eguneko meza.

12:00. Iraetako pilota txapelketaren finalak.

21:00. Afari herrikoia. Garagardo afaria.

23:00. Kontzertuak: Manitu, Dissplasy, Olaberri DJa.

URTARRILAK 22, IGANDEA

17:30. Herri kirol erakustaldia.

-Urrezko aizkora:

Hodei Ezpeleta eta Jokin Urretabizkaia Basozabal Etxeberriaren eta Txapartegiren aurka.

-Errota Harria:

Xabat Olaizola, Gari Garmendia Garmendia II.a, Mikel Lopetegi Urria, Paulo Azpiazu eta Beñat Telleria.

18:30. Emakumeen Harrijasotze Dema: Olaia Esnaola eta Maddi Gesalaga.

URTARRILAK 27, OSTIRALA

22:30. Mus txapelketa, Bekotxen.

URTARRILAK 28, LARUNBATA. UMEEN EGUNA

13:00. Pintxo lehiaketa, Gure Ordeka elkartearen.

14:00. Pintxo bazkaria, Gure Ordeka elkartearen.

17:00. Umeentzako puzgarriak, Iraetako frontoian.

17:30. Iraetako trena umeentzako familiaentzat.

18:00. Txokolatada, festei amaiera emateko.

riek 20 eurotan eskura daitezke, Iraeta, Koiote eta Portale tabernetan nahiz Iraetako futbol zelailan. Gainera, gau osoan zehar autobusak ibiliko dira joan-etorrian Azkoitia eta Zumaia artean.

Urtarrilaren 27an, berriz, XXII. Mus Txapelketa Azkarra jokatuko dute. 22:30ean hasiko da lehia, eta 22:00etarako eman behariko da izena. Bekotxe tabernetan merenderoan jokatuko dute txapelketa, eta bikote bakoitzak 30 euro ordaindu behariko du. Honako sari hauek banatuko dituzte irabazleen artean: lehen sailkatuek mila euro, txapelak eta garaikurrak eskuratuko dituzte; bigarren sailkatuek 400 euro eta garaikurrak; hirugarren sailkatuek berrehun euro, eta laugarren sailkatuek ehun euro.

Azkenean, gaur egingo dute haurren danborrada

Eguraldiak hobetzeraz egingo duela iragarri dutela eta, San Sebastian egunez egingo dute umeen danbor festa, ohi bezala; 12:30ean hasiko da • Edizio hau ixterako, hasi gabe zegoen helduen danborrada

-JULENE FRANTZESENA

Azpeitia

Eguraldi iragarpen makurra tar-teko, azken unera arte ez da jakin noiz egingo duten Azpeitiko San Sebastian jaietako haurren danborrada. Atzo eguerdian egin zuten azken erabakia hartzeko bilera, eta azkenean, gaur, San Sebastian egunez egitea erabaki dute.

Umeen danborradako taldeetako kideak, ikastetxetako guraso elkarteetakoak eta udaleko ordezkariak elkartu ziren atzoko bileran, eta bildutakoek erabaki zuten umeen danborrada normaltasunez egin zitekeela. Izan ere, gaurko egin duten eguraldi iragarpena astearen hasieran eginga zutena baino hobea da. Horrenbestez, herriko umeek gaur ospatuko dute danbor festa, ohi bezala.

12:30ean hasiko da haurren danborrada, Olazko Andre Mariaren plazatik; talde batzuk Arana kaletik eta Bustinzuriko Errebaletik jaitziko dira hara, eta besteak, berriz, Artzubitik igoko dira. Ohiko legez, Arangatik abiatuko da karroza, eta hura arduratuko da desfilea ixteaz.

Helduenerako prestaketak

Haurren danborradaren bezperan, atzo, egin zuten helduen danborrada Azpeitian. Edizio hau ixterako, oraindik hasi gabe zegoen danbor festa. Dena den, ordurako martxan ziren danborradarako prestaketa lanak: danbor taldeetako kantinerak eta banderadunak ile apaindegietan ziren, eta elkarteetako sukaldariak hasiak ziren afarietarako plater bereziak prestatzen. Festa goseaz zen ordurako nagusi.



Goian, atzo gauerako afaria prestatzen Ardozaleak elkartearen. Behean, kantinerak danborradarako prestatzen Adats ile apaindegian. IHINTZA ELUSTONDO

Xabier Unanuek berak transkribatutako 42.000tik gora bertsoak eta hainbat dokumentu osatutako bilduma dohaintzan eman dio Zestoako Udal Liburutegiari, han gorde eta herritarrek eskura izan dezaten.

Bertso altxorra herriaren esku

-MAILO OIARZABAL

Opari mardul bezain aberatsa jaso du Zestoako Udal Liburutegiak, eta haren bidez Zestoako herriak, Xabier Unanuearen eskutik. Bertsolaritzarekiko maitasunak hauspotutako haren urteetako lan etengabeak eta nekaziaz utzitako fruitua interesa duen herritar orok eskura du dagoeneko, digitalizatuta, Alonderoko liburutegian. Fruitu aberatsa, inola ere, 42.000tik gora bertso eta hainbat agiri txukun-txukun jaso eta gordeak baititu Unanuek bere bilduman.

Dohaintza atzo goizean irudikatu zuten liburutegian. Amaia Garate liburuzainari bilduma jasotzen duen USB giltza eman zion Unanuek, eta Garatek liburutegiko zigilua jarri zion hari. Gailu txikitxoak barruan gordezen duenaren tamaina fisikoa aurkezpena egin zuten ondoko mahaian ikusgai zegoen: ehunka kasete, liburuki multzo handia eta 31 VHS bideo ere bai.

Zukututako kaseteak

Aurretik, bildumaren edukia xehetu zuen Unanuek gonbidatuen eta prentsaren aurrean. Hamabi atal edo multzotan banatu

ditu Unanuek bildumaren edukia, eta hainbat daturekin eta pasarterekin aberastu du atal bakoitzean jasotakoaren azalpena.

Zestoan 1976 eta 2000 urteen artean egindako 50 jaialditan jasotako bertsoen transkripzioak osatzen dute bildumaren ataleko bat. Tarte horretan herrian aritu zen bertso taldeko partaide izan zen Unanue, eta 37 jaialdiko grabazioak bereak dira; beste hamahiruak, berriz, Xenpelar dokumentazio zentroak utzi zizkion, transkribatzeko.

Zestoatik kanpoko saioetan grabatutako 244 kasetetako transkripzioak ere eskura jarri ditu Unanuek liburutegian utzi duen bilduman; kasete horietatik 115 Laxaro Garatek -atzo ondoan izan duen liburuzainaren aitona- utzi zizkion, «Zestoako bertsozalerik porrokatuenak». Herritik kanpoko beste 110 bat bertso saioen transkripzioak gehitu behar zaizkie aurrekoei. Azken horien soinu artxiboa, kasetetan jaso, galdu egin da, zintak berreraibili egin baitzituen Unanuek. «Orduan, ez nuen inola ere pentsatzen bilduma hau osatuko nuenik. Grabatzen nituenak transkribatu, eta berriz erabiltzen nituen kaseteak», azaldu zuen.



Xabier Unanue (ezkerretik hirugarrena) eta gonbidatuak, atzoko ekitaldian. MAILO OIARZABAL

Santa Agedaren bueltako tradizioarekin lotutako bi atal ditu Unanuearen bildumak: Zestoan 1992tik 2016ra artean santa eskekan kantatutako koplak ia guztiak, 10.000 bat orotara, transkribatuta; eta Zestoakoak ez ezik, beste hainbat herritan jasotako Santa Agedako tradizioen eta ohituren dokumentazioa.

Bertsolaritzaren aro bat eta Unanuearen belaunaldiko bertsozaleentzat erreferente izandako hiru bertsolariren zientoka bertso ere irakur daitezke zestoarraren bilduman: Manuel Olaiola *Uztapiderenak*, Inazio Eizmendi *Basarrirenak* eta Fernando Aire *Xalbadorrenak*. Beretzat bertsolari kutunenetakoa izan arren, Nafarroa Behereko haren euskalkia ulertzeko zailtasunak tarteko, Xalbadorren bertsoak «nolabait» jasotzen zituela esan zuen Unanuek. «Xalbadorren bertsoak entzun, denak entzuten nituen; baina ulertu, gutxi», aitortu du. Nolabait edo halamoduz, baina, transkribatzen zituen Urepelekoaren bertsoak,

eta hara non, liburutegian utzi duen altxorraren barruan dauden Xalbadorren 1.588 bertsoak egoki eta behar bezala transkribatuta daudela azaldu zuen. Jexux Mari Mujikaren bidez helarazi zizkion transkribatutako bertsoak Xalbadorren alabari, hura aitaren bertso ondarea jasotzen ari zela eta. «Bidaliz nizkion transkripzioak eta grabazioak, eta handik sei-zortzi hilabetera bilduma hori itzuli zidan, berak behar bezala zuzenduta. Harribitxia da niretzat, ni ez naiz gai hori egiteko», kontatu zuen Unanuek.

Zestoako bertso gordailua

Bertsolaritzarena oro har, baina bereziki Zestoako edota Zestoarekin lotutako bertsoen eta bertso munduaren gordailua da Unanuearen bilduma. Izan ere, orain arte aipatutakoez gain, Unanueentzat bereziki kutuna den beste atal batean jaso ditu Zestoan edo zestoarrek sortutako bertso jarrien, idatzitako bertsoen, transkripzioak. *Zestoan*

bertso idatziaren arrastoan izena eman dio berak bildumaren barruko bilduma berezi horri. 1898an herrian egin zituzten Lore Jokoetako bertso paper lehiaketan saritutako bertsoekin hasi, eta XX. mendean zein XXI.aren hasieran idatzitako askotariko bertsoak jaso ditu Unanuek, bertsolari ezagunenak -Uztapiderenak edo atzoko ekitaldian izan zen Jexux Iribar *Olalderenak*, esaterako- eta ez hain ezagunenak. «Inork inork bilduma hau [Zestoan bertso idatziaren arrastoan izeneko] erabili nahi izanez gero, egi-leen edo beren familien baime-na beharko luke izan», zehaztu nahi izan du Unanuek.

Ekitaldiaren bukaeran Olalde bildumagilearen lan eskerga goraitatu zuenean, bestaldean jarri nahi izan zuen arretoa Unanuek: «Jar ditzagun gauzak bere lekuan. Nik egin dudana lana dela garbi dago, baina gustuko lanean aldarrik ez dago. Baina honen protagonista bat da, eta hori bertsolaria da».

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain **TXIKIA** (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €
HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €
merkeago **ESKERTZA** (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barre

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Nerea Uranga.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@ukt.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitatea: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 49 87 23. zarautz@ukt.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@ukt.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@ukt.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@ukt.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@ukt.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@ukt.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27. zestoa@ukt.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
V 9°
A 4°

Mareak

Itsasgora	02:51-15:24
Metroak	3,85-3,83
Itsasbehera	09:01-21:25
Metroak	0,77-0,76

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, ostirala

Antzerkia

Zumaia. *Toto* antzerkia, Hika konpainiaren eskutik. Aita Mari aretoan, 20:00etan.

Erakusketa

Azkoitia. Juan Mari Arrizabalagaren marrazki erakusketa, hilaren 29ra bitartean, Portaleburu erakusketa aretoan. Ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute, eta larunbatean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Zumaia. Geoparkeko hegaztien argazki erakusketa, hilaren 29ra bitartean, Alondegian. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbat eta jai egunetan, 12:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Bihar, larunbata

Antzerkia

Aia. *Lehendakari gaia* antzezlan, Txalo Produksioak konpainiaren eskutik. 22:30ean, Aiako probalekuan.

Azkoitia. *Kottauak* antzezlan, Txalo Produksioak konpainiaren eskutik. 19:00etan, Baztarr-txo antzokian.

Urtarrilak 22, igandea

Ikus-entzunezkoak

Azpeitia. *Gabi* film emanaldia, Uemak eta Tinkok estatutako Zinuema egitasmoaren barruan. 16:30ean, Soreasu antzokian.

Orio. Ritxi Lizartzak eta Juan San Miguelek zuzendu duten *Ainarak* dokumental emanaldia eta kantaldia, 18:30ean hasita, Orioko Kultur Etxean.

Festak

Zarautz. Sagardo Eguna ospatuko dute, 12:00etatik 14:00etara bitartean, Lege Zaharren Enparantzan.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Josu Usobiaga, Mikel Iraeta, Iker Amenabar, Gorka Alcalde eta Iñigo Gonzalez, Azkoitiko Matadeixen. MAIALEN ETXANIZ

«Aurreko diskoaren jarraipena da, baina kantetan muturrera jo dugu»

Azkoitiko eta Azpeitiko musikariek osatzen duten Ro taldeak bigarren diskoa kaleratu du: 'Baiagoan' • Bihar aurkeztuko dute lan berria, Azpeitiko Sanagustin kulturgunean

-MAIALEN ETXANIZ- ANE OLAIZOLA

Azpeiti-Azkoitiko RO musika taldeak bigarren diskoa kaleratu berri du, *Baiagoan* izeneko lana, eta bihar aurkeztuko du Azpeitiko Sanagustin kulturgunean. Boskotea ez da hango oholtzara igoko den talde bakarra izango, Willis Drummond eta Trini Fox taldeek ere zuzeneko bana eskainiko baitute 22:00etatik aurrera.

Gorka Alcaldek, Josu Usobiagak, Iñigo Gonzalezek, Mikel Iraetak eta Iker Amenabarrek osatzen dute RO taldea, eta zortzi abestiz osatutako lana da ondu berri dutena. Hain zuzen, azken lana luzeagoa eta «landuagoa» dela diote musikariek, eta elementu elektronikoez protagonismo handiagoa dutela gaineratu dute.

Bigarren diskoa aurrenekoaren -*Athalase*- jarraipena dela jakinarazi du taldeak: «Garbi

dago aurreko diskoaren jarraipena dela, baina abestien estloian muturrera jo dugu, doinu bigunez zein gogorre dagokienez. Doinu gogorrek intentsioagoak dira, eta bigunak, behar bada, are sentimentalagoak dira; barrura-gogor iristen dira. Horrez gain, badaude beste bizpahiru abesti hasieratik amaierara nahiko gogorrek direnak», azaldu du Amenabarrek. Iraetak, bestalde, kanten artean desberdintasun bano, abestian bertan egon daitezkeen «pasaletan» egin du azpimarra: «Abestiaren uena batean, alde sentimentalean egon zaitezke, eta beste batean, amorruruz betetakoan... Orokorrean, diskoan zehar gauza pila bat patutzen dira».

Diskoaren abesti gehienak konfinamendu garaian konposatu zituzten musikariek, eta orduan bizitako momentuek lan berriko abestietan isla izan deza-

ketela azaldu du Alcaldek. «Momentu tristeak izan ziren, eta ziurrenik, horrek eragina izango zuen kantetan. Era berean, garai hartan denbora asko izan genuen konposatzeko, eta aproposa izan zen musika sortzeko».

Libreago, gozatzeko prest

«Hil aurreko trantzea» esan nahi du bigarren diskoak daraman izenak, eta horrek izan dezakeen zentzua entzuleen esku utzi du taldeak. «Zentzua bilatzen hasiz gero, entzuleak topatuko luke. Gutako bakoitzak, behintzat, izango du haren azalpen bat; izena erraz esaten da, belarrira ongi sartzen da eta musikarekin bat dator». Izan ere, abesti guztiak instrumentalak izanik, kantak sortu ondoren jartzen dizkiete horiei izenak. «Kantuen izena belarrira ondo sartzen diren hitzekin lotzen dugu, eta ondoren ikusten dugu hori kantuen at-

mosferarekin edo beste zerbaitekin lotu al dezakegun», esan du Iraetak.

Lan eta ordu asko eskaini dizkiote labeetik atera berri duten proiektuari, eta gustura daude emaitzarekin. «Orokorrean, harri oso ona ari gara izaten», dio Amenabarrek. Izan ere, 2017an hasitako ibilbideak «esperientzia hartzeko» baliu izan taldeari, eta zer egin nahi duten «argi» dute orain.

Hain zuzen, «esperantzarekin eta gozatzeko prest» ekin die ibilbideko etapa berriari. «Orain libreago gaude kontzertuetan; lehen, guztiak lotuago joan behar zuela iruditzen zitzaigun». Etxekoan aurrean aurkeztuko dute bihar diskoa, eta gogotsu daude zuzenkorako. «Guztia ematera irtengo gara». Aurreratu dute, isilune gutxi eta intentsitate handiko zuzeneko izango da Sanagustinekoa.